


MIGUEL Harategia

T
X
O
R
I
Z
O
A
K



O
D
O
L
O
S
T
E
A
K

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA (Bizkaia)



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

K/ Komentukua, 6 behea
48260 ERMUA
TEL./FAX (943) 17 42 89




- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANO
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

ezkontzetan kantatzen dugu

Aitor Hernandez ziklo-krosseko izar berria

Azken urteotan Aitor Galdos eta Igor Astarloak ziklo-krossean lorturiko arrakasta eta garaipenen ostean, beste izar bat ezagutzearen atarian egon gaitezke. 15 urte dituen ermuar gazte honek bi urte daramatza ziklo-krossean, eta duela gutxi, kadete mailan, Euskadiko Txapelketan irabazteaz gain, Estatuko Txapelketan hirugarren postuan amaitu zuen. Dударik gabe, 97ko bukaeran eta 98ko hasieran izandako 10 lasterketa irabazi izanak argi erakusten du aurrerantzean zeresana eman dezakeen txirrindularia izan daitekeela.



DROGETENITTURRI- MUNDUKO
ZIKLO-KROSS TXAPELKETAN PARTE HARTUKO
DUZU?

Aktor Hernandez- Ez, Munduko Txapelketa jubencil mailatik hasi eta helduagoek izaten dute. Iker Divar ermuarra, Estatuko Txapelketan laugarren sailkatu ostean hantxe izango da. Bera izango da Ermuko ordezkari bakarra.

**D.- ERMUTIK, ZENBATEK HARTU ZENU-
TEN PARTE EUSKADIKO TXAPELKETAN?**

A.H.- Nahiko jende multzo ederra joan ginen. Kadete mailan ni neu, Raul Martin, Iker del Canto, Ivan Pereda, Jose Agustin Fuente eta Mikel Revilla. Jubencil mailan berri,

Iker Divar (laugarren geratu zena), Aitor Galdos (bigarren), Javier Sanchez eta Josu Bayon-ek hartu zuten parte. Azpi-23 mailan azkenik, Jose Luis Holguin izan zen ordezkari bakarra.

**D.- AURTEN KADETE MAILAN EZIN HOBE-
TO IBILI ZARA...**

A.H.- Bai, egia esan ondo ibili naiz. Hamar garaipen erdietsi ditut guztira.

D.- ZEIN TALDETAN ARI ZARA?

A.H.- Ermuan ez dago kadete mailako txirrindulari talderik. Elorrioko txirrindulari talde batean nabil, Renault-Durango taldean hain zuzen. Hau Ermua eta Elorrioko el-

karlanaren ondorioz sortu zen.

D.- NON ENTRENATZEN DUZUE?

A.H.- Berrizen bada ziklo-krossean aritzeko zirkuitu bat, eta hortxe entrenatzen dugu.

**D.- ERREPIDERAKO LAGUNGARRI GISA
EGITEN AL DUZU ZIKLO-KROSSA?**

A.H.- Bai, ziklo-krossa neguan egiten dugu, eta errepidea berri udaberri eta udaran. Udazkenean atsedena hartzen dugu.

**D.- ZER DA ZIKLO-KROSSAK DUEN ONE-
NA ETA TXARRENA?**

A.H.- Onena errepiderako oso lagungarria dela. Aldapak igotzeko indarra eta arnasa lortzen da.

Txarrena, askotan lokatza dela-eta, zikin-zikin eginda bukatzen dugula.


**D.- IGOR ASTARLOA, AITOR GALDOS
ETA ORAIN ZEU...**

A.H.- Bai, egia esan, Ermutik harrobi ona ateratzen ari da azkenaldian, ziklo-krossari dagokionean.

**D.- HORRILLOK PROFESIOALETARA
PAUSUA EMAN BERRI DU.**

A.H.- Bai, nere portal berean bizi da eta pozik dagoela nabari zaio. Aurtun lehenengo urtea izanik, gogotik lan egitea egokituko zaio. Ea zorte ona izaten duen.

Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59



OKINDEGIA
GOZOTEGIA

SAN ANTONIO

Izelaia, 40 Tfnoa. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tfnoa. 17 38 40

ERMUA

Bar GREDOS

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

EkinEza

ESKOLAKO MATERIALEA

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA



Goienkale, z/g • Tlf. 17 20 08

URRETA Burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit Haltzariak